

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

2110/2020 Ebazpena, uztailaren 24koa, zeinaren bidez onesten baita 889-C eredia, hain zuzen ehuneko 75eko konturako ordainketaren zenbatekoaren aitortzen likidazioaren eredia, eta aldatzen baita 889-B eredia, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko Arabako Foru Aldundiaren kontribuzio bereziarena

Arabako Batzar Nagusiek onespena eman zioten abenduaren 20ko 16/2010 Foru Arauari, hain zuzen, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko, Arabako Foru Aldundiaren kontribuzio berezia arautzen duenari.

Zerga oinarria da zerga egitatea egiteagatik Arabako Foru Aldundiak guztira urtero jasaten duen kostua. Kontribuzio berezia ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da, hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontuei buruzko urteroko foru arauan obrak gauzatzeko edo Arabako Foru Aldundiak prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuak ezarri edo zabaltzeko aurrez ikusitako kostuari lotuta; ondoren, egokia bada, likidatu egingo da.

Subjektu pasiboak dira, bereziki onuraduntzat hartzen direlako, Arabako Lurralde Historikoan, Vitoria-Gasteiz kenduta, hauexek babesten dituzten polizak kontratatuta dauzkaten aseguru etxeak:

- a) Sute arriskuak, edozein modalitatetan, bai bakun bai konbinatuetan.
- b) Industria arriskuak.
- c) Salgaien eta bidaiarien garraioaren arriskuak, hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoan (Vitoria-Gasteizko udal barrutia salbuetsita) kokatu edo gertatzen diren ondasun edo jardueri dagozkienak.

Arabako Lurralde Historikoan aurre-aurreko urtean batu diren primen proportzioan banatuko dira aipatu diren arriskuak babesten dituzten aseguru etxe edo erakundeei eskatu ahal zaizkien kuotak, goi muga batutako primen ehuneko 5 delarik. Kalkulu horretatik kanpo geldituko dira Vitoria-Gasteizko udalerrian arrisku horiek estaltzen dituztenak.

Foru arauaren 8.2 artikuluan zehazten da Diputatuen Kontseiluak onetsi behar duela kontribuzio bereziaren ezarpen eta antolamenduaren erabaki zehatza.

Kontribuzio bereziaren kuota biltzeko bi bide daude: aseguru konpainien elkarteez hitzarmena edo haietariko bakoitzarekiko zuzeneko bilketa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzen duen arautegian aurreikusitako moduan.

Aseguru konpainien elkarteez hitzarmena eginez gero, bildutako primen inguruko datuak eman beharko dituzte haiek, eta ateratzen den kuota Foru Ogasunean ordaindu beharko dute.

Uztailaren 21ean, Foru Gobernu Kontseiluaren 345/2020 Erabakiaren bidez, ahalmena eman zaio Lurralde Oreekaren Saileko gaur egungo diputatuari hitzarmena sinatzeko suteak itzaltzeko zerbitzuentzako (IET) kontribuziorako itunen kudeatzailearekin, edo Unespa haren administratzaile bakarrarekin. Hitzarmen hori uztailaren 22an sinatu dute elektronikoki bi aldeen ordezkariak.

Hitzarmen horren laugarren klausularen D letran ezarritakoaren arabera, hitzarmenak indarrean dirauen aldirian (2020-2023), Unespak, elkarte horri atxikitako aseguru konpainia guztien ordezkarietan, nahitaez ordaindu beharko du, urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen, aurreko ekitaldian ateratako azken kuotaren ehuneko 75 (ALHn bildutako primen ehuneko 5, Vitoria-Gasteiz kenduta).

Aurreko hori kontuan izanik, alde batetik, eredu berri bat onetsi behar da, 889-C eredu, aseguru konpainien elkarte horrek, bere garaian, konturako ordainketa hori egin ahal izateko. Bestalde, 2011n onetsitako 889-B eredu aldatu behar da, konturako ordainketaren zenbateko hori jasoko duen laukia sartzeko. Zenbateko hori kenduko zaio ekitaldiko likidazioan aterako den kuotaren zenbatekoari, eta horrela, kontzeptu horrengatik azken zerga zorra zehaztu ahal izango da.

Dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea 889-C eredu, hain zuzen ehuneko 75eko konturako ordainketaren zenbatekoaren aitortpen likidazioaren eredu, zeina ebazpen honen I. eranskin gisa baitoa.


Bigarrena. Aldatzea 889-B eredu, kontribuzio bereziagatik kuotaren likidazioarena, 2011. urtean onetsia orduan Toki Administrazioaren zuzendari zen Izaskun Martínez de Lahidalga Pinedo andrearen ebazpen baten bidez. Zehazki, lauki bat sartuko da, egindako konturako ordainketaren zenbatekoa jasoko duena, behin betiko likidazioa egin aurretik. Eredu hori ebazpen honen II. eranskin gisa doa.


Hirugarrena. ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 24a

*Lurralde Oreka*ren zuzendaria

JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava		889-C	
www.arabaa.eus			
Prebenzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko Arabako Foru Aldudiaren kontribuzio berezia Ordainketa Kontura			
Contribución Especial por el establecimiento, mejora o ampliación del Servicio de Extinción de Incendios y Salvamento por parte de la Diputación Foral de Álava Pago a cuenta			
Lurralde Oreka Saila		Departamento de Equilibrio Territorial	
Ekitaldia Ejercicio Osagarria Complementaria	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	Jardurarik gabe Sin actividad Ordezkoa Sustitutiva	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
NIF / IFZ Izen soziala / Razón Social Helbidea / Domicilio Herria / Localidad Lurraldea / Territorio o Prov. P.K. / C.P.	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>		
Aurreko Urtean Sartutako Kuotaren Zenbatekoa Importe de cuota ingresada en año anterior	<input type="text"/>		
Urteko Konturako Ordainketa (%75) Pago a cuenta del año en curso (75%)	<input type="text"/>		
Luzapen Gehikuntza Recargo de Prórroga	<input type="text"/>		
Berandutza Korrituak Intereses de demora	<input type="text"/>		
ZERGA ZORRA GUZTIRA TOTAL DEUDA TRIBUTARIA	<input type="text"/>		
Zigilua, sinadura eta data	Sello, firma y fecha	Erregistroko zigilua	Sello registro entrada
<input type="text"/>		<input type="text"/>	

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava		889-B	
www.alava.net			
Prebenzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko Arabako Foru Aldudiaren kontribuzio berezia Kitapena			
Contribución Especial por el establecimiento, mejora o ampliación del Servicio de Extinción de Incendios y Salvamento por parte de la Diputación Foral de Álava Liquidación			
Lurralde Oreka Saila		Departamento de Equilibrio Territorial	
Ekitaldia Ejercicio Osagarria Complementaria	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	Jardurarik gabe Sin actividad Ordezkoa Sustitutiva	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
NIF / IFZ Izen soziala / Razón Social Helbidea / Domicilio Herria / Localidad Lurraldea / Territorio o Prov. P.K. / C.P.	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>		
Aurreko Urtearen sutearen kontrako aseguruen primen Zenbatekoa Importe primas seguros incendios año anterior	<input type="text"/>		
Aurreko Urtearen multiarriakuen aseguruen primen Zenbatekoa (%50) 50% Importe primas seguros multirriesgos año anterior	<input type="text"/>		
Aurreko urtearen primen Kopurua Total primas año anterior	<input type="text"/>		
Primen Kopuruaren %5 5% Total Primas	<input type="text"/>		
Urteko Konturako Ordainketa (%75) Pago a cuenta del año en curso (75%)	<input type="text"/>		
Berandutza Korrituak Intereses de demora	<input type="text"/>		
ZERGA ZORRA GUZTIRA TOTAL DEUDA TRIBUTARIA	<input type="text"/>		
Zigilua, sinadura eta data	Sello, firma y fecha	Erregistroko zigilua	Sello registro entrada
<input type="text"/>		<input type="text"/>	